



BILDUTAKOAK: LHko ordezkariak, Elkarbizitza Batzordeko irakasleak eta alkatea.

GAIA: ordezkariak helarazitako eskabideei erantzuna ematea.

NON: Eskolako liburutegian.

1. Eskaerari erantzuna:

Ikasturte hasieratik Lehen Hezkuntzako ikasleek bizikidetzaren burbailen arabera hainbat asanblada egin dituzte, patio ordua eta eskola eremua nola hobetu daitekeen eztabaidatzeko. Mendiak taldekoek proposamen guztiak jasotzeko ardura izan zuten eta Untzilla taldekoek eskutitza nola idatzen den ikasi eta alkateari eskola hobetzeko proposamenak jasoko zituen eskutitza idatzeko ardura hartu zuten. Azaroak 25ean alkateak udalean hartu gintuen eta ordezkariak eskolako kanpoko eremua hobetzeko hainbat proposamenak azaldu eta hauek jasotzen dituen eskutitza helarazi zioten alkateari:

Hauek dira ikasleen arteko asanbladatik jaso ziren proposamenak:

1. Parkean etxerako lanak egiteko egurrezko mahaia jartzea.
2. Masusta aldeko saski baloiko kanasta konpontzea.
3. Kanpoko frontoiko armailak egurrez estaltzea,
4. Parkean tirolina eta salto egiteko ohe elastikoak jartzea.

Hauek azaldu ondoren, ikasleek lehenengo hiru eskaerei ematen dietela lehentasuna azaldu zuten.

Udalaren aldetik jaso dugun erantzuna hau izan da:

1. Parkean etxerako lanak egiteko egurrezko mahaia jartzea:

Udaleko taldeak gai hau aztertu ondoren parkean egurrezko beste mahai bat jartzeko proposamena onartu dute. Hala ere, aukeratutako egurrezko mahaiak gurpildun aulkiak sartzeko aukera ematen duena izango da.

Ezaugarri hau kontuan izatea oso ondo baloratu dute momentu honetan ditugun mahaietan gurpildu aulkiarekin egoteko ez baidago aukerarik.

2. Masusta aldeko saski baloiko kanasta konpontzea.

Udaleko zerbitzuetako arduradunara lanean hasia dago jada. Laster konponduko dute.



3. Kanpoko frontoiko armailak egurrez estaltzea:

Alkateak udalbatzari oso ideia interesgarria iruditu zaiola azaldu digu. Momentu honetan dirulaguntza eskatuta dutela barruko frontoiko teilatua aldatzeko eta kanpoko frontoari aterpea jartzeko. Hala ere, proiektua ez dagoenez oraindik idatzita, ezin dute jakin egurrezko armailak jartzeko aukera emango duen ala ez. Alkateak 2022-23 rako obra bat izango dela azaldu du. Beraz, eskaera honen jarraipena hurrengo urteetan egiten jarraituko dugu.

4. Parkean tirolina eta salto egiteko ohe elastikoak jartzea.

Badira urte batzuk Pirata Barkua jarri zela eta dagoeneko aldatu beharra dago. Parkeko berrizteko proiektuan ohe elastikoak aurreikuita daudela azaldu zuen alkateak.

Tirolinari dagokionez, non eta nolakoa jarri daitekeen aztertuko dutela azaldu zuen. Hau 2021.urtean egitea aurreikusten dute.

Bestalde, eskolako eraikinean azken aldian egin dituzten apurketen inguruan hitz egin nahi izan dute ikasleek. Izan ere, udalak daukan dirua konponketak egiten gastatu behar badu, berrikuntzarako diru gutxi gelditzen zaiola azaldu baitu. Batez ere, harri jaurtiketak, asteburuan aterpeko sabaia baloiarekin apurtzea edo eta jangelanindarrez sartzea aipatu dute.

Eztabaida oso interesgarria izan dugu guztion artean, eta jarrera desegoki hauek egitearen arrazoiak zein izan daitekeen eztabaidatzen aritu gara hauen aurrean eskolako partaide eta herritar bezala zer egin dezakegun aztertzen.

Eztabaidan ideia hauek nabarmendu ziren:

- **Ikasleek ezagutzen jokabide hauek izaten dituzten pertsonak. Ondorio hauetara iritsi dira:**

→ **Gehienak eta danak mutilak dira.** Zergatik? Pentsatuko dute ekintza hauek eginda besteen aurrean inportanteagoak izango direla? Mutil batzuk pentsatzene dute neskak baino gehiago direla mutilak izateagatik...

Eta pentsamendu honen aurrean zer egin dezakegu? Hainbat ideia:

- Aipatzen dute gaur egun telebistan ikusten dituzten serie eta pelikuletatik ikasten dutela hori: aipatu dute Goazen ! telesaila, Grease pelikula e.a.
- Denbora tarte batean mutilak nesken lekuan jarri daitezela eta alderantziz proposatu dute. Hauek ikus dezaten zer den sentitzen dena...
- Aterpean pertsona hauentzako zuzendutako mezuak idaztea. Hasieran kasurik egingo ez dutela aurreikusten bada ere, denborarekin jarrera hauek alde batera utziko dituztela ondorioztatzen da.

Beraz, hurrengo ordezkari bilerarako hainbat lan ildo proposatu ziren:



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea

- Eskolan mutil eta nesken arteko desoreka dagoen aztertu eta esku hartzea proposatu.
- Patioaren antolamenduaren gainean hausnarketa egiten jarraitzea.